

NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea Adiskide Numerarioa
Sarrera Ikasgaia
Discursos pronunciados en el Acto de Ingreso de:
XABIER IRUJO
Amigo de Número

Suplemento 28-G del Boletín de la RSBAP

PALACIO - INTSAUSTI - JAUREGIA
AZKOITIA

2024-07-13



Juan José Álvarez Rubio, Amigo de Número de la Bascongada
Luis Elicegui Mendizabal, Amigo de Número de la Bascongada
y presidente de la Comisión de Gipuzkoa.
Xabier Irujo, nuevo Amigo de Número de la Bascongada



Xabier Irujo, Nuevo Amigo de la Bascongada



Josu Okiñena, Amigo de Número de la Bascongada
Garikoitz Mendizabal, Amigo de Número de la Bascongada
Maidor Ronquete, Soprano



Palacio de Intsausti Jauregia - Azkoitia



Juan José Alvarez Rubio, Amigo de Número de la Bascongada
Xabier Irujo, nuevo Amigo de Número de la Bascongada
Luis Elicegui Mendizabal, Amigo de Número de la Bascongada
y presidente de la Comisión de Gipuzkoa

HARRERA HITZAK / PALABRAS DE RECEPCIÓN

JUAN JOSÉ ÁLVAREZ

EAEko Adiskide Numerarioa

Amigo de Número de la Bascongada

Como Amigo de Número de la Bascongada supone un honor y un reto intelectual asumir el encargo de realizar estas Palabras de Recepción de Xabier Irujo en nuestra RSBAP. Y lo es porque a su brillante trayectoria intelectual y sus valores como persona y como académico se suma su compromiso con nuestro País desde su labor como director del Centro de Estudios Vascos de la Universidad de Nevada en Reno, donde es catedrático de estudios de genocidio. Su compromiso con los valores que han de presidir la convivencia entre diferentes y su sólida formación en Historia, en filosofía y en filología le convierte en un referente para todos nosotros.

Estas palabras persiguen contextualizar desde un análisis geopolítico y en parte también jurídico internacional la brillante Lección de Ingreso de nuestro nuevo Amigo de Número, a quien felicito y agradezco en nombre de nuestra Bascongada su generosidad intelectual y su aceptación para integrarse en nuestro devenir como Sociedad.

La inédita situación de caos geopolítico mundial que vivimos abre numerosas incertezas e incertidumbres y trae aparejadas

toda una serie de derivadas diplomáticas, políticas, sociales, económicas y medioambientales de enorme repercusión. Vivimos en un entorno internacional inestable, de incertidumbre permanente y donde el necesario ejercicio de prospección, clave fijar estrategias sociales, institucionales o empresariales es cada más complejo e impredecible.

Por todo ello resulta necesario e imprescindible tratar de revitalizar el multilateralismo. Y también hay que reforzar el espíritu, impulso y vitalidad de un renovado consenso mundial en torno a la defensa de los derechos humanos. El 10 de diciembre del pasado año se cumplió el 75º aniversario de la aprobación de la Declaración Universal de los Derechos Humanos por la Asamblea General de las Naciones Unidas. Aquella Resolución 217 A (III) cambió el mundo, aunque no tanto como deseaban entonces y como queremos ahora.

Han pasado ya casi 76 años, y aquel sueño de la humanidad, tras el sufrimiento de la Segunda Guerra Mundial, sigue más vigente que nunca. El sistema internacional de derechos humanos se creó como modelo para prevenir conflictos y lograr la paz. Los derechos humanos tienen un poder preventivo y resultan fundamentales para abordar las causas y las repercusiones de todas las crisis complejas, y para construir sociedades sostenibles, seguras y pacíficas.

¿Existe una teoría de las relaciones internacionales que pueda aportar cierto rumbo y sentido a un mundo tan caótico e incierto como el que nos está tocando vivir?; ¿cómo gestionar, entre otras situaciones conflictivas que emergen en las relaciones entre Estados en el mundo, las crisis derivadas de la guerra en Ucrania y la proclamada guerra de Israel contra Hamas en Oriente próximo?; ¿cómo será el mundo del mañana?; ¿cómo definir unas líneas de reflexión estratégica que dibujen, a modo de brújula social, qué camino seguir?; no conocemos qué ocurrirá, tan solo sabemos que ese futuro no se parecerá al presente.

Dos de los principales problemas a los que nos enfrentamos derivan, por un lado, de la inexistencia de unas normas, de unas reglas internacionales capaces de atender a los retos derivados de un contexto geopolítico mundial presidido por el conflicto permanente y por la ausencia de un equilibrio global; y por otro, topamos con la inexistencia de un liderazgo mundial compartido.

Las instituciones que refundaron las relaciones internacionales en 1945, hace ya 78 años, experimentan hoy día un serio declive en su “autoridad” mundial, y ello les impide abanderar ese necesario liderazgo supranacional.

Se nos olvida pronto que, comparados con la guerra, todos los demás problemas son secundarios: lo han puesto en práctica históricamente mandatarios de muchos Estados y lo siguen haciendo en la actualidad, siempre aderezados de propaganda patriótica, buscando el apoyo, la adhesión inquebrantable y acrítica de la población, lo cual les permite centralizar el poder, censurar la prensa e ignorar los derechos fundamentales.

Frente a la barbarie y la hipocresía diplomática tan solo cabe reivindicar alto y claro la defensa de los Derechos Humanos de forma universal e incondicional. Nuestro reto pendiente como sociedad pasa por lograr generar e impulsar una cultura democrática de pleno respeto de los derechos civiles, políticos y sociales de todas las personas y por transmitir a las nuevas generaciones una cultura del diálogo y de no violencia como instrumento único para resolver los conflictos. La democracia es el arte de vivir en desacuerdo y convivir entre diferentes.

¿Cómo se define el genocidio en la normativa internacional? El Convenio de 1948 define el genocidio como un crimen internacional, de lesa humanidad, y *se entiende por tal cualquiera de estos actos, perpetrados con la intención de destruir, total o parcialmente, a un grupo nacional, étnico, racial o religioso como tal: matanza de los integrantes del grupo, lesión grave a la integridad física o mental de sus*

integrantes, sometimiento intencional del grupo a condiciones de existencia que hayan de acarrear su destrucción física, total o parcial, medidas destinadas a impedir los nacimientos en el seno del grupo o traslado por fuerza de niños del grupo a otro grupo.

El crimen contra la humanidad es el tipo general del que se deriva el genocidio; éste es una especie singular y particularmente agravada no solo por el volumen sino por los caracteres del acto punible y el dolo o intención de aniquilamiento de ese grupo. Son dos condiciones cumulativas. El genocidio responde a un plan o «política de Estado» expresa –como las leyes nazis– o encubierta del que se deduzca, de hecho, «una línea de conducta» o denominador común de los actos criminales enjuiciados. Hechos criminales y plan son inseparables para que haya genocidio.

La jurisprudencia de la propia Corte o Tribunal Internacional de Justicia de La Haya muestra la complejidad procesal y de prueba que conlleva traducir la acusación de genocidio en sentencia condenatoria. La Corte solo juzga demandas entre Estados, es decir, hechos ilícitos internacionales atribuibles al Estado en su conjunto. No puede juzgar a personas, aunque sean órganos del Estado. La sentencia dictada por la propia Corte Internacional sobre las denuncias de Serbia y Croacia, que se acusaban mutuamente de genocidio en la guerra de los Balcanes, es buena prueba de todo ello: no condenó ni a uno ni a otro Estado porque hay que demostrar que hay una “política de Estado”, no basta con acreditar la existencia de graves crímenes de guerra y crímenes contra la humanidad.

¿Y en Gaza? la comisión de graves violaciones del Derecho internacional no justifica una respuesta armada que a su vez incumpla este Derecho. Los actos terroristas de Hamas no justifican los crímenes posteriores del Estado de Israel. Ante los graves crímenes perpetrados por Hamas, Israel tiene, según la Carta de las Naciones Unidas (art. 51), el derecho inmanente de

legítima defensa, esto es, el derecho a usar la fuerza necesaria para repeler un ataque armado actual o inminente, mientras dure el ataque, y mediante los medios proporcionados para repelerlo.

Pero la legítima defensa no lleva aparejado el derecho a las represalias armadas. Éstas constituyen un uso ilícito de la fuerza y son contrarias al Derecho internacional. Desde el inicio del ataque a Gaza, las declaraciones de las autoridades políticas y militares israelíes indican sin ambages una intención de no sentirse obligados por los principios fundamentales del Derecho internacional. Los ataques armados indiscriminados y a gran escala contra la población civil son contrarios a los derechos humanos y al Derecho internacional humanitario. El asedio contra Gaza por parte del ejército israelí ya ha provocado el asesinato de miles de personas, la mitad de ellas mujeres y niños, así como un gran número de personas heridas.

Llevamos demasiado tiempo contemplando impasibles como la ONU asiste a un declive de su auctoritas institucional a nivel mundial. El uso abusivo, y para muchos ilegítimo, del derecho al veto en su seno, ha dejado a esta esperanzadora institución paralizada e inútil ante la barbarie de la guerra y el uso de las operaciones militares.

Deviene más necesario que nunca un diálogo racional entre los Estados frente a una geopolítica mundial sumida en el caos y que sigue marcada por el recurso de la guerra, por el uso desmedido y brutal de la fuerza y no de la racionalidad, pero las diferentes varas de medir ante las brutales vulneraciones de derechos humanos y el incumplimiento impune de las normas internacionales así como la tendencia geopolítica global hacia el conflicto bélico conducen al pesimismo y a la debilidad y a la desconfianza en las instituciones.

El mundo necesita consensuar una ética que no se pueda trampear. Asistimos al incumpliendo de los principios más bási-

cos del Derecho internacional humanitario y los límites del derecho a la legítima defensa. La comisión de graves violaciones del Derecho internacional no justifica una respuesta armada que a su vez incumpla este Derecho. La legítima defensa no lleva aparejado el derecho a las represalias armadas. Estas constituyen un uso ilícito de la fuerza, y son contrarias al Derecho internacional, tal como establece, en su interpretación de los principios básicos de la Carta de las Naciones Unidas, la Declaración 2625 (XXV) de su Asamblea General.

Debe respetarse el Derecho internacional humanitario incluidos los Convenios de Ginebra. De acuerdo con el IV Convenio de Ginebra y el Estatuto de Roma, está prohibido dirigir intencionalmente ataques contra la población civil en cuanto tal o contra civiles que no participen directamente en las hostilidades. Los ataques armados indiscriminados y a gran escala contra la población civil son contrarios a los derechos humanos y al Derecho internacional humanitario.

No solo las partes en este conflicto deben respetar las normas internacionales protectoras de los derechos humanos y el Derecho internacional humanitario en todo momento y en toda circunstancia. El resto de los Estados, como Parte de los Convenios de Ginebra, tienen el deber de hacer cumplir estas normas en toda circunstancia.

Vivimos momentos cruciales de la historia, tenemos la responsabilidad de lograr un Mundo de Derecho en el que la legitimidad de la ley y el respeto a la misma sea el único e indiscutible camino para promover la paz y la cooperación. No podemos permanecer impasibles como sociedad civil. Alcemos cívicamente nuestra voz, nuestra exigencia y nuestra dignidad como parte de la humanidad.

Y en este catártico y duro contexto, desde la RSBAP debemos elevar el listón de la generosidad vital, social e intelectual, para ser capaces de aportar, desde la humildad y el conocimiento,

reflexiones que permitan civilizar colectivamente el futuro de nuestra sociedad.

Nuestra RSBAP ha trabajado siempre desde la humildad intelectual, gestando proyectos útiles para la sociedad vasca. Debemos trabajar en todos aquellos campos que puedan fortalecer los valores, las inteligencias, las voluntades, el conocimiento, el progreso y la convivencia pacífica de las personas. La incorporación como Amigo de Número de Xabier Irujo a nuestra RSBAP nos enriquece, aporta conocimiento, investigación y pedagogía social en pro de la convivencia.

Ongi etorri, Xabier, eta besarkada estu bat!

**“GENOZIDIO”
KONTZEPTUAREN INGURU**

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea
Adiskide Numerarioa
Sarrera Ikasgaia

XABIER IRUJO
Katedraduna
(Nevadako Unibertsitatea)

PALACIO - INTSAUSTI - JAUREGIA - AZKOITIA
2024-07-13

Raphael Lemkineksortu zuen “genozidio” hitza eta kontzeptuari esanahia eman zion 1944an argitaratu zuen liburuan (*Axis Rule in Occupied Europe: Laws of Occupation, Analysis of Government, Proposals for Redress*. Washington, D.C.: Carnegie Endowment for International Peace Division of International Law, 1944). Egile honek definitu bezala, genozidioa ez da herritarren erailketa masiboa. Askoz esanahi sakonagoa du kontzeptuak. Giza talde baten erabateko suntsipena da genozidioa, hots, giza talde horren “patroi nazionalaren” edo nortasun kolektiboa deuseztatzea. Honek talde honen hizkuntza, ohiturak, erlijioa, erakunde politiko eta sozialak, eta beste hainbat ohitura eta azturen deuseztatzea dakar, eta genozidioaren eragilearen giza taldekoidentitate kolektiboarekin ordezkatzeta. Kasu gehienetan gobernu bat izaten da genozidioa garatzen duen agentea. Lemkinen definizioaren arabera, baita 1951ko Genozidioaren Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioaren eta 1998ko Erromako Estatutuaren arabera ere, giza talde baten suntsipena hainbat modutan gauzatu daiteke eta, nahiz eta metodo guztiak ankerak izan, ez dute beti herritarren heriotza masiboa gauzatzen.

Giza talde baten kide guztien edo askoren erailketa edo desagerpena (hilketa masiboak, kontzentrazioa edota deportazioa) genozidio fisikoaren esparruko estrategiak dira. Izan ere, giza talde baten nortasun kolektiboa suntsitzeko modu bat talde horren kide guztien edo askoreneraispena da. Genozidio biologikoaren estrategien artean Lemkinek aipatu zituen esterilizazio masiboak, genero banaketa edo ezkontza-loturak debekatzea. Erlijio-praktikak debekatzeak genozidio erlijiosoaren esparruan kokatu zuen Lemkinek, XIX. mendera arte praktika ohikoeneta-

ko bat. Talde baten ezaugarri nagusia kultura izanik, talde horren adierazpen kulturalak suntsituz eta beste batzuk inposatuz, talde horren identitate kulturala suntsitzen da, genozidioa eraginez.

Lemkinek azpimarratu zuen moduan, batera gertatzen dira genozidioko estrategia guztiak (fisikoa, biologikoa, politikoa, soziala, ekonomikoa, kulturala, erlijiosoa eta morala), eta maiz modu koordinatu batean martxan jartzen dira estrategia hauek. Alegia, giza talde baten identitate kolektiboa suntsitzeko saiakerak beti heriotza eta suntsipenarekin batera dator baina genozidio fisikoaren praktikak sarritan errepresio politiko, kultural, ekonomiko eta sozialeko estrategiekin batera gauzatzen da.

Genozidio kulturalaren adibide argienetako bat Frantziako konbentzio nazionalako osasun publikoaren batzordeko kide zen Bertrand de Barère-k bultzatutako hizkuntza-politika da. 1793ko abuztuaren 1ean konbentzioaren aurrean hitz egin zuen eta “Vendée suntsitu behar da!” lelopean, asanblada konbentzitu zuen patriotismo nabarmena duten komisarioz osatutako armada bat hara bidaltzeko (“commissaires d’un patriotisme prononcé”). Lurralde behar bezala arpilatu eta erretzeko, tropei beharrezko erregai emateko agindua eman zien ere. Irailaren 5ean eta 17an, suntsipen material eta genozidio-kanpaina metodiko bat hasteko, Barèrek asanblada animatu zuen izuaren diktadura ezartzera, “monarkikoak eta moderatuak berehala desagerrarazteko”. Asanbladak dekretua onartu zuen eta ordutik aurrera epaile iraultzaileek edozein pertsona atxilotzeko, exekutibokiepaitzeko eta exekutatzeko boterea izango zuten, inongo frogarik edo lekukorik gabe. Izu politikoa beharrezkoa zela defendatuz, Barèrek berriro animatu zuen asanblada 1793ko urriaren 1ean, Nantes eta Baiona zein Parisen “barneko bandoleroak” (“les brigands de l’intérieur”) suntsitzera. François Joseph Westermann eta Louis Marie Turreau jeneralaren “zuta-be infernalen” tropak Barèreraren aginduetara 20.000 eta 50.000 zibil artean erail zituzten, batez ere adinekoak, emakumezkoak

eta haurrak. Jean Baptiste Carrierrek, Nantesko gobernu iraultzailearen ordezkariak, 9.000 zibil inguru hil zituen 1793ko azaroa eta 1794ko otsaila bitartean. Carrierrek emakumezkoak eta haurrak Loira ibaian urperatuz hil zituen. Beste milaka lagun hil zituzten Gigant delako harrobian tirokatuz. Beste asko gehiegi-kerien, gaixotasunen edo gosearen ondorioz hil ziren.

Parisa itzuli ondoren, Carrier konbentzioko gobernuko idazkari izendatu zuten eta Turreau-ren izena “Arc de Triomphe de l’Étoile”-en harriz grabatuta dago. Biktimak ezezagunak eta errekonozimendurik gabe jarraitzen dute egun. Genozidio gertaeretan oso arrunta da hau.

Frantsesak ez zirelako zapaldu zituzten Vendeeko biztanleak, hots, Robespierre-n konbentzioak inposatutako moduko frantsesak ez zirelako. Gobernu iraultzaileak nazionalitate batego pertsonen migrazio masiboak behartu zituen (Iparraldean 1794an gertatuko zen bezala) eta muga historiko-kulturalak desitxuratu zituen, estatu berria hainbat departamentu artifiziale-tan banatuz. Baina hori ez zen nahikoa eta ezinezkoa zen herri oso bat suntsitzea 1794ko gobernu iraultzailearen baliabideekin, hortaz, genozidio fisikoaren estrategiei beste praktika batzuk gehitu zizkieten hainbat nazioen identitate kolektiboa suntsitzeko.

Beraz, ez da harritzekoa Henri Grégoire-rekin batera, Barèrek genozidio kulturalaren mekanismoak martxan jarri izatea. Maximilien Robespierre, Georges Danton eta Saint-Just-en zuzendaritza politikoean eta Barèrek eta Grégoirek inspiratuta, “la terreur linguistique” jarri zuten martxan 1794an.

Mundua hizkuntza bakar batean ikusi zuen lehen teorikoe-tako bat Antoine de Rivarol izan zen. 1783an idatzitako “Sur l’universalité de la langue française” lanean, frantsesa beste hizkuntza europar guztien gainetik zegoela defendatu zuen egileak. Rivarolen arabera, frantseserak beste hizkuntza guztiak baino argitasun, zorrotzasun, adierazpen-gaitasun eta arrazio-

nalitate handiagoa zuelako hizkuntza hori hitz egiten zuten guztiak argiagoak, zorrotzagoak, adierazpen-gaitasun handiagokoak eta arrazionalagoak ziren. Bestalde, egilearen ustez, oso zaila zen pertsona ilustratua izatea frantsesa jakin gabe.

Frantses iraultzaren ostean, zenbait egilek urrats bat gehiago eman zuten eta frantsesez hitz egitea kultura izateko modu bakarra zela argudiatu zuten. Ildo berean, beste edozein hizkuntza bat hitz egitea antzu gabekoa eta kaltegarri ere zela ondorioztatu zuten. Horrenbestez, “betebehar patriotikoa” bilakatu zen gainerako hizkuntzak birrintzea. Ideia hauek azkar zabaldu zuten Jakobinoek, frantsesa ez hitz egitea kontra iraultzailea eta traizioa zela zabalduz.

Charles M. Talleyrandek ideia hauek defendatu zituen 1791ko irailaren 10ean: “Herritar guztiei erakatsi behar zaie konstituzioaren eta legeen hizkuntza, eta dialekto ustel asko, feudalismoaren azken hondarrak, desagerrarazibehar ditugu: hau beharrezkoa da”. Helburu hori lortzeko, haurrei frantsesez hitz egiten erakasteko hezkuntza sistema bat ezartzea ezinbestekoa zen eta hori da hezkuntza sistema publikoaren lehen eginbeharretako bat: Errepublikaren lehen hizkuntzan klase guztiak eman irakaskuntza unibertsala sortuz.

1794ko dekretuen onarpenaren ondoren, ordu-arte “langue d’oil” hizkuntza izan zenak “langue française” titulu juridikoa hartu zuen, eta “nazioaren batasunaren sinboloa” bilakatu zen. Orain bi mende luze praktikan jarri ziren arau horiek gaur egun Europako herrialde askoren hizkuntza-politikaren gidalerroak izaten jarraitzen dute; alegia, “la terreur”-eko testuinguruan, diktatoriala eta terrorista (genozida) zen gobernu baten izenean diseinatu, idatzi, onartu eta ezarri ziren arau horien izpirituak indarrean jarraitzen du Europako hainbat tokietan.

Grégoirek 1793ko uztailaren 30ean Osasun Publikoko Batzordearen (“Comité de Salut Public”) aurrean adierazi zuen frantsesa hitz egiten ez zutenen “zauri mentalak” sendatuko zituzten eskolak sortzea beharrezkoa zela eta ikastetxe hauei

“giza espirituaren ospitaleak” deitu zien. Grégoire-ren arabera, arrazoimenaren haurtzarora eta aurreiritzien zahartzarora luzatzen zuten hizkuntzak berehala desagerraraztea izugarri garrantzitsua zen. Era berean, 1794ko urtarrilaren 28an txosten bat aurkeztu zuen Barèrek konbentzioan, irakaskuntzaren bidez frantsesa inposatzeko eta beste hizkuntzak debekatzeko.

Barèrek (eta beste iraultzaile asko berarekin batera) ulertu zuen Vendeeko edo Iparraldeko altxamenduei amaiera emateko eta frantses errepublikaren oinarri politiko-kulturalak ezartzeko modu bakarra frantses hiritarrak fabrikatzeko sistema bat ezartzea zela. 1794ko urtarrilaren 28an konbentzioaren aurrean egindako diskurtsoan defendatutako ideien oinarriak honako hauek dira:

1. Frantsesak fabrikatzea eta izpiritu iraultzaileak lantzea beharrezkoa zen eskoletan. Gazteentzat doakoak izango zen eskola hauetan ikastea, baina derrigorrezkoa. Ikastetxe hauetan frantses hizkuntza, Frantziako historia eta “ideologia zuzena” irakatsiko zen frantses hutsez. Beste edozein hizkuntza bat hitz egitea zigortuko zen. Barèrek “Martitzeko eskolak” deitu zituen (soldadu patriotikoak katean sortzeko fabrikak) eta Grégoirek “giza espirituaren ospitaleak”, haien funtzio nagusia frantsesak ez ziren edo izan nahi ez zuten pertsonak “sendatzea” baitzen.
2. Hezkuntza-sistema ejertzitua bezala antolatuko zen. Barne ministerioak hierarkikoki kontrolatuta, ikasleak ez ziren euren familiena izango, errepublikako hiritarrak baizik, iraultzaren idealari baino beste afiliatorik gabe eta armen bidez edo zergak ordaintzeko eskubidea erabiliz zerbitzatzea baino aintza handiagorik gabe (Napoleonek 1804 eta 1815 artean bi milioi eta erdi gazte errekrutatu zituen; gutxienez %30a hil zen).
3. Eskola horietara seme-alabak eramaten ez zituzten gurasoak zigortuko zituzten, frantsesez hitz egiten ez zuten hau-

rrak zigortuko zituzten, beste hizkuntza bat erabiltzen zuten irakasleak zigortuko zituzten eta erregimenaren kolorez jantzita ez zeuden ideiak irakasten zutenak zigortuko zituzten. Zibilizazioaren eta iraultzaren izenean, frantsesera ez ziren beste hizkuntza guztiak desagerraraztea beharrezkoa zen (da). Barèrek berak esaten zuen bezala, “federalismoak eta superstizioak bretoneraz hitz egiten du, emigrazioak eta errepublikarekiko gorrotoak alemanez hitz egiten du, kontrairaultzak italiarrez hitz egiten du eta fanatismoak euskaraz hitz egiten du. Suntsitu ditzagun kaltea eta akatsa sortzen duten tresna hauek”

4. Eskola hauetan irakasle izateko estatuak akreditatutako herritarrak soilik izango ziren maisu. Maisu hauek prestatuko zituzten irakasleen prestakuntzarako eskolak antolatuko zituzten, eta haiei arauzko eskolak edo “eskola arruntak” (“École normale”) izena eman zieten. Hasieran, eskola hauetara sartzeko baldintza bakarria ideal iraultzaileari atxiki-mendua aurkeztea zen.

Horrela ezarri ziren frantses estatuaren hizkuntza-politikaren oinarriak 1793ko ekainaren eta 1794ko abenduaren artean.

“Errepublikako txoko guztietan klaseak frantsesez baino ez daitezela eman” lelopean, 1793ko urriaren 21eko dekretua derrigorrezko hezkuntza hizkuntza bakarrean emateko lehen lege-arauetako bat da. 1794ko uztailearen 20ko dekretuak frantsesa erabiltzea agindu zuen eta beste hizkuntza guztiak debekatu zituen estatuaren administrazioan: “Errepublikako lurraldearen edozein lekutan ez da dokumentu publikorik idatziko (ezta erregistratuko ere) frantsesez baino”. 1794ko udazkeneko hamaika dekretuen onarpenaren ondoren frantsesera errepublikaren hizkuntza bihurtu zen eta beste hizkuntza guztiak “patois”, “jargons” edo “hizkuntza feudalak” izatera pasa ziren.

Hizkuntza bat desagerrarazteko estrategiarik eraginkorrena administrazio elebakar baten inposaketa da, estatuaren lau

botereen antolaketa elebakarra eta hezkuntza-sistema zentralizatu barne hartzen dituena. Edo, bestela, hizkuntza baten legezko hierarkia inposatzea besteekiko. Datu batek berresten du estrategia honen eraginkortasuna: frantziar, espainiar edo beste edozein estatu zentralizatu askotan hizkuntzen erabilera-indizeen bilakaera azken bi mendeetan. 1789an euskaldunak ziren euskaldun gehienak, eta euskaldun gehienak euskaldun-zaharrek ziren; bi mende geroago, Iparraldean euskaraz hitz egiten duten herritarren portzentajea %20koa da. 2021eko datuen arabera, Iparraldeko biztanleriaren %20akeuskaraz hitz egiten zuen. Portzentaje hau jaisten jarraitzen du: 1996an %26,4koa baitzen eta 2006an %22,5ekoa. Era berean, 1789an Iparraldeko Euskal Herrian frantsesez lehen hizkuntza zutenen kopurua oso murrizta zen: Gaur egun ia %90a da. Hegoaldean fenomeno bera gertatu da. Beste datu bat: 2013ko UNESCOren datuen arabera, 114 hizkuntza eta hizkuntza-aldaera galtzeko arriskuan daude Europar Batasuneko 27 estatuetan: funtsean, hizkuntza ofizialak ez diren gehienak. Halaber, ez dago desagertzeko egoeran dauden hizkuntza ofizialik.

Hizkuntza-politikari buruzko milaka lege-arauen aurrean, argi dago euskal herritarrek debekuak oinarritzat hartuta ikasi zutela euren hizkuntza hitz egitea arriskutsua zela eta administrazioetik zerbait nahi bazuten frantsesez edo gaztelaniaz egin behar zutela. 1846an Pirinio Beheko prefektuak adierazi zuen bezala, “Euskal Herriko eskolen helburua euskarafantsesarekin ordezkatzeta da”.

Eta “hizkuntza politika” eredu hau espainiar liberalismoak hartu zuen. Helburu politikoa estatu berrian gaztelaren monopolioa ezartzea izan zen, administrazio publikoaren eta hezkuntza sistemaren esparru guztietatik ofizialak ez ziren gainerako hizkuntzak baztertuz. Cadizko gorteek eta Melchor Gaspar de Jovellanos zuzendutako hezkuntza batzordeak 1813an erabaki zuen “bat izan behar du eskoletako doktrina eta ira-

kaskuntza metodoak, eta irakasten den hizkuntza ere bat izan behar du eta hori gaztelera behar du izan”.

1789 eta 1839 artean euskal estatuen erakunde eta askatasunen galerarekin batera, Euskal Herriaren eskubide kulturalen suntsipena ekarri zuen eta XIX. mendearen amaieran egoera prekario batean jarri zuen honek euskara. Bi estatuen hizkuntza-politikak euskal identitate nazionalaren oinarriak suntsitzea izan dute helburu, pertsona fisikoen eskubideak debekatuz edo murriztuz edo, besterik gabe, baztertuz. “Hizkuntza politika” deitu zaio, baina hori guztia, definizioz, genozidio kulturala da.

2021eko Frantziako Errepublikako Konstituzio Auzitegiaren epaiak euskarazko murgiltze-hezkuntza sistema publikoan jasotzeko euskal herritarren eskubidea ukatu zuen, 230 urteko izu linguistikoaren testuinguruan beste mugarri bat da hau. Errepublikako organo judizial gorenak berriro ere ezarri zuen betiko leloa: Errepublikaren hizkuntza bakarra frantsesa da.

Halako “politikaren” emaitzak bistan daude. Hendaia eta Irun bi hiri euskaldunak dira, ibaia batek bereizita. Hendaian denek dakite Racine nor zen ez ezagutzea “inkulturaren” sinonimo dela, “Kultura” eskoletan ikasten dena delako. Eta Irunen denek dakite Gonzalo de Berceo nor ezagutzen ez duenak ergel hutsa dela, hori irakasten baita eskoletan (“cultura general” delakoa). Baina Hendaian bigarren hezkuntzako ikasle gutxik entzun dute Berceori buruz, eta Donostiako ikasle gutxik dakite nor zen Racine. Hala ere, estatu-mugaren bi aldeetako ikasleek badute zerbait amankomunean: ez batek ez besteek ez dakite nor izan zen Joan Batista Elizanburu.

Hau guztia ez da iraganeko kontua, gure errealitatearen parte bizia da. Hizkuntza sistema publikoan kultura eta hizkuntza ofizialak inposatzeko tortura eta tratu txarrak gaur egun ere erabiltzen jarraitzen diren estrategiak dira.

Genozidioari buruzko ikastaro bat ematen ari nintzen Boise State Unibertsitatean 2022ko udazkenean. 50 bat ikasle ginen klasean, eta zazpi ordu ondoren eguna amaitzear zegoen. Azken saioaren gaia linguizidioazen, alegia, historian zehar erregimen desberdinek irakaskuntzan “zibilizazio” kontzeptua inposatzeko erabili dituzten teknikak azaltzea. Altsasun 1838an jaio zen Eusebio Ollori buruz hitz egin nien ikasleei. Bere kintako gazte guztiak bezala, gaztelaniaz hitz egiten ikasi gabe hazi zen etxean, garai hartan ia ez baitzen hizkuntza hau Sakanan erabiltzen. Sei urte zituela bertako eskolara joan zen lehen aldiz, eta han araua “gaztelania bakarrik” zen. Eskolan sartu eta egun gutxira, maisuak gaztelaniaz hitz egiten ez zuelako makilakada sorta ederra eman zion Eusebiori. Errituala egunero errepikatzen zen goizean eta egunaren amaieran. Sarri burdinazko eraztuna eraman behar izan zuen, eta eraman zuen bakoitzean, bitan jaso behar izan zituen makilakadak eguneko, goizez eta arratsaldez. Torturari amaiera emateko modu bakarra zegoen: euskaraz hitz egiten zuen beste ikasle bat salatu eta eraztuna berari pasa. Noski, sistemak guztiz isolatzen zuen eraztuna eramaten zuen haurra; inork ez zuen bere ondoan egon nahi. Bere hizkuntza erabiltzea zein kaltegarria eta arriskutsua zen ikasi ondoren, sekula ez zion alabari euskaraz hitz egin. Urte batzuk geroago, suhiak jakinarazi zionean bilobak euskaraz ikasiko zuela Oñatiko eskolan, Eusebiok 32 urteko alabari aitortu zion lehen aldiz zergatik ez zion inoiz euskaraz hitz egin. Eusebiorena, birraitonarena, ez da kasu isolatu bat, araua zen.

Nire Boiseko aurkezpena amaitzen ari nintzela, ikasle batek eskua altxatu zuen: “Niri gauza bera gertatu zitzaidan!” esan zidan, “gauza bera...” Honen inguru hitz egiteko eskatuko nion eta bi hilabete geroago Boisen elkartu ginen. JosephaSowanou du izena eta hau da bere istorioa.

“Afrikako ipar-mendebaldean dagoen Benin herri txiki batean jaio nintzen. Nire aita eta ama Mina hizkuntzako dialekto ezberdinak hitz egiten dituzte, eta hori zen nire adineko ia haur

guztiek hitz egiten zuten hizkuntza. Baina nire herrialdeko konstituzioaren lehen artikulua arabera hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Batzuek esaten dute legearen artikulua garrantzitsuena dela, lehena. Eta artikulua hau zorrotz betetzen da eskolatan. Arauak "frantsesetik bakarrik" zioen eta betebeharrak hori urratzen genuenak gogor zigortzen gintuzten. Sarritan zigortu ninduten. Burdinazko eraztunaren ordean, karrakola handiz egindako lepoko bat eramatera behartzen gintuzten, mugitzen ginenean zarata handia egiten baitzuen. Klaseak hasi baino lehen, irakasleak egurrezko makila batekin eskuen palmondoetan gogor jotzen zigun. Gero guztiok batera esertzen ginen, baina jolastokira ateratzen ginenean inork ez zuen gure ondoan egon nahi, "karrakoladunak" baikinen, guztiak zekiten lepokoa beste pertsona bati pasatzeko edozer gauza egiteko gai ginela: Lepokoa zeramanak guztiz isolatuta zegoen. Inori pasatzen ez genion bitartean, maisuak eskuen palmondoetan eta ipurdian jotzen zigun egunaren amaieran; oso mingarria zen. Baina denon aurrean zigortzeakeragiten zuen lotsamina baino mingarriagoa zen. 35 edo 40 ikasle inguru ginen eta nik sei urte baino ez nituen. Erljio-ikastetxeetan okerrago zen, bertan ikasle guztiaren aurrean zigortzen baitzituzten zigortutako ikasleak, egunaren hasieran eta amaieran. Ezin genuen lepokoa kendu, beti eramaten genuen jantzita. Nire herria, Comè, oso txikia denez, maisuak etxera eramaten gintuen, eta han gurasoek zigortzen gintuzten klasean desobeditzeagatik. Nire aita maisua zen, eta oso serio hartzen zuen hau: frantsesetik hitz egin behar da. Eta errituala hurrengo egunean errepikatzen zen. Zaila zen klasera joatea goizean eskuak minberatuta esnatuz eta etxera itzultzea, aitak kolpatuko zizula jakinda. Inongo haurrik ez luke esku minberatuekin esnatu behar.

Gogoratzen dut "ranking" bat zegoela "onenetik" "txarre-na" arte ikasle guztiak ordenatuz, eta zerrenda horren behealdean zeudenak sarritan zigortzen zituztela. Guztiak zigortu gintuzten gauza askorengatik, baina frantsesa hitz egiten ez zute-

nak bakarrik eramaten zuten karrakolalepokoak. Beti zegoen norbait zigortuta, normalean bi ikasle klase bakoitzeko. Kolpeek ez zidaten frantsesa hobeto ikasten lagundu, eta horrela igaro nituen nire lehen hezkuntzako hirugarren eta bosgarren mailako urteak.

Hamar urte bete nituenean, bigarren hezkuntzan sartu ginenean, kolpeak amaitu ziren, baina hezkuntza frantsesez bakarrik eskaintzen jarraitu zuten: frantses hizkuntza eta literatura ikasten genuen, Benineko historia eta geografia, heziketa fisikoa, biologia eta ekonomia. Bosgarren mailan frantsesera azterketa bat gainditu behar zen eta hurrengo bost urteetan, funtsean, ikasgai berberak ikasten genituen, gehi frantses filosofia, Frantziako historia, ingelesa eta gaztelania. Hizkuntza kolonial hauek bakarrik zuten lekua gure hezkuntza sisteman. Benineko literatura ikasi genuenean, frantsesez idazten zuten egileak bakarrik ikusi genituen, “la littérature béninoise de langue française” delakoa. Hitz egiten genituen hizkuntzak, “langues vulgaires” edo “patois” deituak, ikasketa-plangintzatik kanpo zeuden. Bertako hizkuntzatzat (“langues vernaculaires”) hartzen dira frantsesa hizkuntza ez diren beste guztiak, eta frantsesa, berriz, hizkuntza ofiziala eta legezkoa da (“langue véhiculaire”), talde linguistiko ezberdinen arteko komunikazioa ahalbidetzen duela suposatzen baita. Itxuraz, frantsesez bakarrik ulertzen gara eta afrikar hizkuntzek ez dute helburu horretarako erabilgarritasunik. Horrela da nire herrialdeko hezkuntza milurteko berriaren hasieran“.

Kulturalki Benin herrialde anitza da, 50 jatorrizko hizkuntza baino gehiago hitz egiten diren eta biztanleriaren gehiengoa eleanitza den herrialdea. 10 milioi biztanletik 3,8 milioi inguru frantsesa bigarren hizkuntza bezala hitz egiten dute, baina hizkuntza afrikarra ez den arren eta hizkuntza politikaren titulua “languevéhiculaire” duen arren, biztanleriaren %40k baino gutxiagok hitz egiten du. Hala ere, Errepublikako hizkuntza baka-

rra da. Hizkuntza autoktonoak “hizkuntza nazionalak” dira; horrek esan nahi du “existitzen direla” baina “estatus legalik gabe”.

Hau da “L’Organisation internationale de la francophonie”-ren ekarpena afrikar kulturari. 1970ean “égalité, complémentarité et solidarité” lelopean sortutaeta kultur eta hizkuntza aniztasuna eta elkartasuna aldarrikatuz, bere oinarritzko printzipioen artean demokrazia eta giza eskubideen errespetu sustatzea omen da. 85 milioi euroko aurrekontu ofiziala eta 54 herrialde kide eta mila milioi pertsona baino gehiago biltzeaz harro, frantsesa planeta osoaren “hizkuntza nagusi” bihurtzea du helburu.

Sistema eraginkorra da. 1838an, Eusebio Ollo eta bere ikaskideak euskaraz bakarrik hitz egiten zuten eta horregatik zigortu zituzten; ia bi mende geroago, 2007an, Sakana 20.000 biztanle baino gehiago ditu eta %24,6k soilik erabiltzen du euskara lehen hizkuntza gisa. Biztanleriaren %68,5ak kolpez ikasi du behar den hizkuntzan hitz egiten. Hau da, hitz batean, genozidioa: kolpez kolpe gu garena izateari uztea.

EUSKAL HERRIKO ADISKIDEAK

TXISTU ETA PIANORAKO DUOA

I - ABESTIA

Doinua: Xabier Irujo
Moldaketa: Altor Furundarena Usabiag

Ad libitum, quasi Cadenza

Piano *f* *mp*

Pno. *f* *mp*

Pno. 12

Tx. 18 *contabile* ♩ = c. 130

Pno. 18 *mp* *p* (txistua koloretzatuz)

Tx. 29

Pno. 29 *mp*

EUSKAL HERRIKO ADISKIDEAK- TXISTU ETA PIANORAKO DUOA

2

The musical score is presented in five systems, each with a Txistu (Tx.) part on a single staff and a Piano (Pno.) part on a grand staff (treble and bass clefs). The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 2/4. Measure numbers 34, 39, 45, 52, and 58 are indicated at the beginning of each system. The Tx. part consists of a single melodic line. The Pno. part features a complex accompaniment with various textures, including sixteenth-note runs, chords, and a section labeled 'glucoso' in measure 34. Dynamic markings such as *v* (piano) and *g* (forte) are used throughout. The score concludes with a final measure in system 5.

EUSKAL HERRIKO ADISKIDEAK- TXISTU ETA PIANORAKO DUOA

3

66

Tx.

Pno.

73

Tx.

Pno.

80

Tx.

Pno.

86

Tx.

Pno.

92

Tx.

Pno.

EUSKAL HERRIKO ADISKIDEAK- TXISTU ETA PIANORAKO DUOA

4

99

Tx.

Pno.

mp

107

Tx.

Pno.

114

Tx.

Pno.

122 *Ad libitum, quasi Cadenza*

Tx.

Pno.

II - DANTZA

Zortziko (tempo ad libitum)

126 Tx. *f*

126 Pno. *p*

132 Tx. *mf*

132 Pno. *f* *p*

138 Tx. **Zortziko** ♩ = 110

138 Pno. *mf*

144 Tx.

144 Pno.

156 1. 2. **Zortziko (meno mosso)** ♩ = 100

Tx.

Pno.

157 *leggiero*

Tx.

Pno.

164

Tx.

Pno.

171 *leggiero* **Zortziko (più mosso)** ♩ = 130

Tx.

Pno.

178

Tx.

Pno.

185

Tx.

Pno.

192

Tx.

Pno.

199

Tx.

Pno.

3 - ERESERKIA EDO MARTXA

205 **Moderato, T. di marcia** (♩ = c. 110)

Pno. *mf*

210 Tx. *mp*

Pno. *mp*

215 Tx. *mf*

Pno. *mf*

220 Tx. *dolce*

Pno. *mp*

The musical score is for a piano and voice duet. It is in 4/4 time with a key signature of one flat (B-flat). The tempo is 'Moderato' with a metronome marking of approximately 110 beats per minute. The piece is in 3/8 time. The score is divided into four systems, each with a vocal line (Tx.) and a piano accompaniment line (Pno.). The first system starts at measure 205 with a piano dynamic of mezzo-forte (mf). The second system starts at measure 210 with a piano dynamic of mezzo-piano (mp). The third system starts at measure 215 with a piano dynamic of mezzo-forte (mf). The fourth system starts at measure 220 with a piano dynamic of mezzo-piano (mp) and a vocal dynamic of dolce. The score includes first and second endings for the vocal line in measures 215-216 and 220-221. The piano accompaniment features a steady eighth-note bass line and a more active treble line with eighth and sixteenth notes.

245

Tx. *dolce*

Pno. *p*

250

Tx.

Pno. *p* *dolce*

254

Tx.

Pno. *f*

258 **Messtoso**

Tx. 1. 2. *rit.*

Pno.